

# Debarreneko euskarazko komunikazio-sistema

## Tokian tokiko kazetaritza-genero eta gaien analisisa 2000-2004 bitartean

Alazne Aiestaran  
Komunikazio Zientzietan doktorea

Artikulu hau Debarreneko tokian tokiko euskarazko prentsa aztertu duen doktore-tesian oinarrituta dago. 2000-2004 bitartean bailara horretan argitaratzen diren 6 herri-aldizkarien (...*eta kitto!*, *Pil-pilean*, *Barren*, *Berriktan*, *Kalaputxi* eta *Drogeteniturrri*) kazetaritza-genero eta gaien analisisa egin da; milurteko berrian argitalpenek zer argitaratzen duten, nola argitaratzen duten eta ikerketa-epean izan duten garapena jakiteko helburuarekin. Era berean, agerkari bakoitzaren ezaugarriak eta bakoitzak bere herrian ematen duen zerbitzua nolakoa den ezagutu nahi izan da azterketa honetan.

Eduki-analisitik abiatuta, aldizkari bakoitzaren errealitatea eta espe-rientzia islatu dira; eguneroko errealitatea, funtzionamendua, lan-taldeen osaketa, langileen profila, prestakuntza, nola antolatzen duten euren jarduna edota lan-taldeen antolaketa moduak nolako eragina duen aldizkariak argita- ratzen dituen edukietan (kazetaritza-genero eta gaietan) ikertu da. Beraz, lan honetan lan-taldeen profesionalizazioaz, lanaren duintasunaz, militantziaz, aldizkarietako kazetaritza-genero eta gaien deskribapenaz, kalitateaz, aldizkarien ahuleziez, indargunez eta etorkizunerako bideaz arituko gara.

This thesis analyzes written press from Bajo Deba (located in the Basque Country). Specifically, the essay examines six magazines published in different towns throughout Bajo Deba. We have demonstrated various aspects of this basque local journalism, such as which journalistic sorts they use, the emergent themes, how the themes are utilized, and the evolution of these publications, during the time of this investigation. As well, the content analysis has proven each magazine's unique characteristics and the services they offer.

The content analysis reflects the reality and experience of each publication. That is why, the investigation not only examines journalistic sorts and themes, but also other aspects, such as how the work is done in the redaction room, how the work is organized, redaction workers profile, and how those aspects influence in the content of the publication.

## 1. Sarrera

Debabarrena eskualdea Gipuzkoako mendebaldean kokatuta dago eta honako 9 herri hauek osatzen dute: Bizkaikoak diren Ermuak eta Mallabiak, eta Gipuzkoakoak diren Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku herriek. Bailara horretan argitaratzen diren eta hurbileko informazio orokorra euskaraz eskaintzen duten aldizkari guztiak ikertu dira: Ermua eta Mallabiko *Drogetenitturri* hilabetekaria, Eibarko *...eta kitto!* astekaria, Soraluzeko *Pil-pilean* hamabostekaria, Elgoibarko *Barren* astekaria, Debako *Berriketan* hilabetekaria eta Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekaria. Agerkarietako kazetaritza-generoak eta gaiak hartu dira kontuan: zeri buruz informatzen duten eta zein genero erabiliz kaleratzen dituzten euren edukiak ezagutzeko.

Horretarako bost urteko epea aukeratu da, 2000tik 2004ra doana. Batetik, euskarazko herri-aldizkarien sektorean 2000. urtea klabea izan zelako, garapeneua izan baitzen. Bestetik, 2003an Debabarrenean bateratze-prozesu baterako lehenengo ahalegina egin zelako. Hortaz, bi data horiek erabakigarriak izan dira aukeratu den 5 urteko azterketa-epea finkatzeko.

2000. urtea mugarri bilakatu da hurbileko informazioa lantzen duten komunikabideen esparruan. Milurteko berria, aldaketa, mugimendu eta garapen handiko garaia izan baita euskarazko tokian tokiko prentsarentzat eta horrek, ikertzeko interesgarri bilakatu du. Aldaketok Debabarrenean ere izan zuten oihartzuna: 2003ko maiatzean Debarroaren barreneko euskara elkarte eta kultur elkarteak, herri-aldizkarien bateratze-prozesurako lehen urratsak ematen hasi baitziren. Aztergai dugun eskualde osoan zabalduko zen astekari bat kaleratzeko bideragarritasun-plana martxan jarri zuten Debabarrenean. Horretan ari zirela, bailara osorako telebista sortzeko aukera azaldu zen eta aldizkarien bateratze-prozesua alde batera utzita, eskualde osorako euskarazko telebista sortzea izan zen ordutik aurrera elkarteen lehenetsuna, betiere, euskara elkarte eta kultur elkarte bakoitzak bere agerkaria kaleratzeari utzi gabe.

### Tokian tokiko prentsaren sorrera

Hego Euskal Herrian, 80ko hamarkadaren bukaeran herri-aldizkarien urrezko aroa hasi zen, *Arrasate Press* aitzindari izanik 1988an. Orduan tokian tokiko prentsaren eredu bilakatu zen bezalaxe, 2000. urtean Debagoienean, Goiena talde multimedia sortuz, beste urrats bat eman zen euskarazko herri-komunikabideen arloan, multimedia-egitasmoak hedatzeko eredu bilakatzeko nahiarekin. Hala eta guztiz ere, multimedia-proiektuen zabalkundea Euskal Herrian ez da izan herri-aldizkarietako 90eko hamarkadan izan zutenaren parekoa, ezta gutxiago ere. Ipar Euskal Herrian, aldiz, tokian tokiko agerkarien fenomenoak ez du inoiz Hego Euskal Herrian izan duen hedapenik lortu eta, gaur egun, 1944an sortu zen *Herria* astekaria da Ipar Euskal Herrian, euskaraz informazio lokala eskaintzen duen tokian tokiko agerkari bakarra.

Debabarrenean 1988an Eibarko *..eta kitto!* aldizkaria sortu zen, orduan hilabetekari zena, gaur egun astekaria. Ondoren, 1992an Elgoibarko *Barrenek* ikusi zuen lehenengo argia. Bi urte beranduago, 1994an, Ermua eta Mallabiko

*Drogeteniturri* kaleratzen hasi zen, 1996an Soraluzeke *Pil-pilean*, 1998an Debako *Berriketan* eta 2001ean Mutrikuko *Kalaputxi* jaio zen.

## Ikerketaren helburuak

Euskarazko herri-komunikabideen inguruan egin dira zenbait ikerketa<sup>1</sup> baina 1988an Eibarko *..eta kitto!* aldizkaria sortu zenetik, Debabarreneko euskarazko herri-prentsaren fenomenoak ez da bere osotasunean ikertu, ez da inoiz bailarako aldizkariak eduki-azterketa bateraturik egin. Ondorioz, euskarazko tokian tokiko prentsan ia hogeitak urteko ibilbidea egin eta gero, ez da inon jaso zein izan den Debabarreneko sei herri-aldizkariak historia eta bilakaera: agerkiak ezaugarriak zeintzuk diren, aldizkariak zer duten komunean eta zerk ezberdintzen dituen batzuk besteengandik.

Bestalde, Debabarreneko esperientzia eta errealitateak islatu nahi izan dira azterketa honetan, aztergai dugun bailarako sei aldizkariak artean aniztasuna egon badagoelako. Espektroa zabala eta askotarikoa delako oso: maiztasunez, tiradez, lan-taldeak egitura eta antolatetaz. Hau da, Euskal Herrian tokian tokiko prentsan dagoen aniztasuna Debabarrenean ere islatzen delako. Horrela, bada, eskualdeko herri-aldizkariak fenomenoak bere osotasunean aztertzearekin batera, egitasmo bakoitzaren errealitate eta ezaugarrietara hurbiltzeko ahalegina egin nahi izan da.

Azkenik, aztertzeke zegoen esparru horretan gogoeta bultzatzeko asmoak gaian sakontzera bultzatu ninduen. Izan ere, 2000. urtean ikerlan honen egilea, Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturri* hilabetekariak koordinatzaile eta publizitate-arduradun hasi zen lanean. Beraz, urteetan gertutik ikusi eta ikasitakoan oinarrituta, azterketa honek, egilearen ekarpenak eta hausnarketak ezagutzera emateko helburua ere badu, barrutik bizi izanak beste ikuspegi bat eskaintzen duelako.

## 2. Metodologia

Lan honetan finkatu diren helburuak lortzeko eta hipotesiak frogatzeko, ikerketa zientifikoak egiteko erabili ohi diren ikerketa-eredu nagusiak erabili dira: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Hortaz, ikerketa-eredu bakoitzaren bitartez, helburu ezberdinak lortu dira.

---

1. Asier Aranguren *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian* doktore-tesia, Idoia Camachoren *Herri aldizkariak funtzioak euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999* doktore-tesia. Horiez gain, makina bat izan dira herri-prentsaren inguruan idatzi diren testuak, txostenak eta antolatutako jardunaldiak: *Jakin* aldizkariak, tokian tokiko prentsari ale monografikoa eskaini zion 1992ko 69. zenbakian. Arrasateko AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) Euskara Elkarteak herri-komunikabideei buruzko hiru jardunaldi antolatu zituen 1991, 1992 eta 1993 urteetan hurrenez hurren. Jardunaldiak herri-hedabideen fenomenoak finkatzeko eta ezagutarazteko helburua izan zuten ardatz. Bere aldetik, Topaguneak, Euskara Elkartearen Federazioak, 2003an "Tokiko hedabideak etorkizunari begira" jardunaldiak antolatu zituen Zamudion. Bertan, tokian tokiko prentsa, irratiak, telebista, sarea eta horien etorkizuna izan ziren aztergai. Han aurkeztu ziren txosten guztiak, *Tokiko hedabideak etorkizunari begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak* liburuan jasota geratu ziren.

## 2.1. Azterketa kualitatiboa

Metodo kualitatibo interpretatzaileen baitan dauden tekniken artean, elkarrizketa sakonak egitea hobetsi da. Herri-aldizkarietako igorle-protagonisten iritzia jasotzea giltzarria izan da, agerkarien eguneroko errealitatea sakonago ezagutzeko eta aldizkarien ahuleziak eta indarguneak zeintzuk diren identifikatu ahal izateko. Era berean, azterketa kuantitatibotik lortutako emaitzak modu egokian interpretatu ahal izateko ezinbestekoak izan dira elkarrizketa sakonak. Guztira sakoneko bost elkarrizketa egin dira, 2000-2004 bitartean aldizkariotan ari ziren koordinatzaile, erredakzioburu edo zuzendariekin.

Elkarrizketa guztiak banakakoak izan dira, Debako *Berriketan* aldizkariko protagonistekin egindakoa izan ezik, bertoko lan-taldean diharduten 4 kideri taldeko elkarrizketa egin baitzitzaien. 70 galderaz osatutako elkarrizketa sakonak izan dira guztiak, eta ordu eta erdiko iraupena izan dute batez beste. Galdetegiak bi zati nagusi izan ditu. Alde batetik elkarrizketatu guztientzat komunak izan diren galderak prestatu dira eta, bestetik, aldizkari bakoitzaren berezitasunak aztertzeke erabili diren galdetegi espezifikokoak.

## 2.2. Azterketa kuantitatiboa

Metodo kuantitatiboan artean, eduki-analisia erabiltzea erabaki da, haren zeregin nagusia komunikabideen mezuak aztertzea baita, objektiboa, sistematikoa eta kuantitatiboa izanik. Eduki-analisiaren bitartez, sei herri-aldizkariotan agertzen diren edukiak aztertu dira. Hots, ikerketa-epean Debabarreneko zenbait herritako agerkarietan kaleratutako gaiak eta kazetaritza-generoak zeintzuk eta nolakoak izan diren jakin gura izan da; baita 2000-2004 bitartean kazetaritza-genero eta gaien bilakaera ezagutu ere.

Azterketa honetan lagina aukeratzekoan, Debabarreneko euskarazko sei herri-aldizkariak hartu dira kontuan: Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturrri*, Eibarko *...eta kitto!*, Soraluzeko *Pil-pilean*, Elgoibarko *Barren*, Debako *Berriketan* eta Mutrikuko *Kalaputxi*. Unibertso osoko unitateak banan-banan ikertzea ezinezkoa denez, probabilitatezko laginketa erabili da. Orotara, tokian tokiko euskarazko prentsaren 566 zenbaki kaleratu dira 2000-2004 bitartean Debabarreneko herri ezberdinetan, eta, ikerketa hau egiteko aukeratu den lagina, 318 aldizkarik osatu dute, azterketa-epean argia ikusi duten aldizkari guztien % 56,79 izanik.

Tesi honetan argitalpenetako sail guztietako edukiak aztertu dira: informazio-testuak, iritzi-testuak eta, orobat, testuen lagungarri diren irudi, grafiko eta argazkiak. Horiek guztiak, laguntzen dioten testuaren baitan konputatu dira, hau da, albistea eta albistearen testua ilustratzen duen argazkia, item bakar gisa zenbatu dira, ez baita inolako bereizketarik egin analisi-unitateen tamainaren arabera. Alegia, analisi-unitate guztiak tamaina bera izango balute bezala aztertu dira eta guztira, 12.226 item kodifikatu dira.

Analisi-unitate bakoitzaren kodifikazioa, kazetaritza-genero eta gaiak definitzen dituen kategoria-sistemaren arabera egin da. Kategoria-sistema propioa garatu da, tokian tokiko hedabideen sektorea aztertzeke aurrez egindako lanak aintzat hartuta eta doktore-tesi honetarako egokituta. Hiru iturri erabili dira definizio propioak

garatzeko unean: Idoia Camacho-ren *Herri-aldizkarien funtzioa euskara normaltzeke prozesuan 1989-1999*” doktore-tesia; *Sei herri-aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat*, Jotxo Larrañaga, Miren Gabantxo eta Asier Arangurenegindako ikerketa, eta María Pilar Diezhandino eta César Coca-ren *La nueva información* lana. Azken horrek ez du espresuki herri-prentsa aztertzen, baina lagungarria izan da kategoria-sistema osatzeko.

Metodo kuantitatiboan oinarrituz, ikerlan hau egiteko sortutako neurketa-sistemaren fidagarritasuna frogatzeko, estudio pilotu bat egin da, kodelari independenteekin. Froga zuzentzeko, kodeketa-erabaki guztiak hartu dira kontuan eta ikerketa honen egileak egindako kodeketen emaitzekin alderatu dira. Ondoren, Hoslti-ren<sup>2</sup> fidagarritasun-formula aplikatu zaie emaitzei, ikerketarako sortu den kategoria-sistema eta item bakoitza neurtzeko modua, egokia eta fidagarria den ala ez frogatzeko.

Formularen emaitzen arabera, ikerketan erabilitako sistema fidagarria dela esan daiteke, froga egin duten kodelari bakoitzaren eta tesiaren egilearen artean % 90etik gorako fidagarritasuna dagoelako; kodelari independenteen eta egilearen emaitzen arteko adostasun-maila batez beste % 93,8koa izan da eta, metodologiek, kodelarien artean gutxienez % 90eko fidagarritasun-portzentajea lortzea jotzen dute egoki.

Ikerlan honetan finkatu diren helburuak aintzat hartuta, hiru zutabe nagusitan egituratu dira honako hipotesi eta lan-galderak:

### **Debabarreneko komunikazio-sistemaren ezaugarriak**

- Nolakoak dira Debabarreneko tokian tokiko agerkariak, gai eta kazetaritza-generoei dagokienez?
- Agerkarietako lan-antolaketak eta lan egiteko erak, zer nolako ondorioak ditu aldizkarietako gai eta kazetaritza-generoen erabileran?

### **Epe laburreko erronkak**

- Ba al dago harremanik Debabarreneko argitalpenen egitura profesionalen eta kalitatearen artean?
- Debabarreneko komunikazio-sistema idatzia kalitatezkoa izango bada, beharrezkoak ditu kazetari profesionalak idazgeletan?
- Epe laburrean, zeintzuk indargune eta ahulezia antzematen dira Debabarreneko euskarazko komunikazio-sistema idatzian?

### **Etorkizunaren diseinua**

- Debabarreneko euskarazko prentsa idatzia, berrantolatu beharra dago?
- Berrantolaketa beharrezkoa izanez gero, zein da aurrerantzean jorra daitekeen bidea?

---

<sup>2</sup>. Holsti, O. (1969): *Content Analysis for the Social Sciences and Humanities*, Reading (Mass.), Addison-Wesley.


### 3. Ondorioak

Hipotesi eta lan-galderei erantzunez, 3 multzotan antolatu dira ikerlanaren ondorio nagusiak:

#### 3.1. Nolakoa da Debabarreneko komunikazio-sare euskalduna?

Azterketa honetan 4 ezaugarriren arabera definitu da Debabarreneko komunikazio-sistema. Alde batetik, azterketa-epean agerkariek kaleratu dituzten kazetaritza-generoak hartu dira kontuan. Bestetik, ikerketa-epean errebistek landu dituzten gaietara erreferatu zaie. Era berean, herri-hizkeraren erabilera eta aldizkarietan ari den lan-taldearen profesionaltasun-maila aintzakotzat hartu dira.

##### 3.1.1. Kazetaritza-generoak



Sei aldizkarietan **informazioa** da genero izarra. Bailaran euskara hutsean argitaratzen diren sei errebistetan, informazio kopurua % 50etik gorakoa izanik kasu guztietan, aldizkarietan kaleratzen diren edukien erdia baino gehiago hain zuzen ere. Informazioaren baitan **albiste laburrak**, **albisteak** eta **argazki-albisteak** nagusitzen dira. Halaber, *...eta kitto!*, *Kalaputxi* eta *Berriketan* aldizkarietan, erreportajea da gehien erabiltzen den informazio-generoa.

**Zerbitzu-gunea** da gehien errepikatzen den bigarren generoa aldizkari guztietan —*Berriketan* hilabetekarian izan ezik—. Errebista gehienetan zerbitzu kopuruak % 14 eta % 21 bitartean kokatzen dira. Zerbitzuen barnean **zerbitzu-informazioa**, **agenda** eta **denbora-pasak** dira gehien agertzen diren zerbitzuak. *...eta kitto!* eta *Barren* astekarietan **salerosketa** eta **trukkeen** saila indartsua da oso, astero orrialde osoa kaleratzen baitute doako iragarkiekin. Gainerako aldizkarietan aipatu atal horrek ez du arrakastarik izan; agerkari batzuetan ez delako inoiz argitaratu eta beste batzuetan, argitaratu arren, irakurleen artean ez duelako jarraipenik izan.


**Iritzia** dugu aldizkari gehienetan hirugarren generorik garrantzitsuena. *Berriketan* hilabetekarian hirugarrena da zerbitzu-gunea eta iritzia bigarrena. Iritzi-generorik landuenak dira **irakurleen gutunak**, **kale-inkesta** eta **zutabea**. *Kalaputxi* eta *Berriketan* hilabetekarietan, oro har, ez da iritzi-zutaberik argitaratzen;

*Drogeteniturrri* eta *Berriketan* hilabetekariak ez dute irakurleen gutunak kalera-tzeko atalik.

Literatura eta komikiaren agerpena hutsala da aldizkari guztietan.

Beraz, informazio-, zerbitzu- eta iritzi-aldizkariak dira Debabarreneko komuni-kazio-sare euskalduna osatzen dutenak.

### 3.1.2. Gaiak



Grafikoari erreparatuz gero, zalantzarik ez dago **gizarte-gaiak** direla aldizkari guztietan gehien jorratzen direnak. Lan honetan ikertu diren sei agerkarien datuen arabera, aldizkari gehienetan gizarte-gaien portzentajea % 40tik gorakoa da. Kasu guztietan eta salbuespenik gabe, gizarte-gaien baitan **gizarte-ohiturak** (aisialdia, herritarren bizitza, herritarren azturak, jaiak...) eta **zerbitzuak** (zerbitzu publiko zein pribatuei buruzko testuak: farmazia, liburutegi, kiroldegi edota eguraldiari buruzko informazioa, denbora-pasak, lehiaketak...) dira gairik inportanteenak. Bi horien ostean, argitalpen guztietan **lanak** eta **hezkontza** dira gehien agertzen diren gizarte-gaiak.

**Kultura** da bigarren blokerik garrantzitsuena kasu guztietan, % 20tik gorako portzentajearekin (% 22-37 bitartean) sei hedabideetan. Kultura-gairik errepi- katuenak, oro har, **arte eszenikoak** (horien baitan **musika**), **literatura** eta **komu- nikabideak** dira. Euskara ez da, oro har, gehien lantzen diren gaien artean ager- tzen, baina aldizkari batzuetan arreta berezia jartzen zaio, batez ere argitalpena kaleratzen duten euskara edo kultur elkarteen helburua euskararen sustapena den kasuetan, *Drogeteniturrri*, *...eta kitto!*, *Pii-pilean* eta *Barrenen* esaterako.

**Kirola** da hirugarren atalik landuena aldizkari gehienetan, batez ere maiztasun handiagoa duten hedabideetan, *...eta kitto!* eta *Barren* astekarietan besteak beste. Aldizkariaren maiztasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta arreta handiagoa jartzen zaio kirolari, astean kirolari buruzko bi orri kaleratuz.

Herri bakoitzean oihartzun gehien duten kirolak aldizkarietako protagonistak badira ere, oro har, **futbola, pilota, txirrindularitza, mendia, atletismoa** eta **arrauna** (Mutrikuko *Kalaputxin*) izan dira azterketa-epean gehien agertu direnak. Dena dela eta salbuespenak salbu, herri guztietan kirol amateurrari kirol profesionalari baino espazio gehiago eskaini zaio aldizkarietan.

**Politika** eta **ekonomia** dira portzentajeen arabera aldizkari guztietan gutxien agertu diren bi gaiak. Politikaren portzentajeak sei agerkarietatik bostetan, % 10etik beherakoak izan dira, Soraluzeko *Pil-pilean* salbuespena izanik, bertan % 14ko portzentajea kokatu baita politika. Soraluzeko hamabostekariaren gaitegian, politika gai garrantzitsuen artean izan da beti, eta, Soraluzeko zein Euskal Herriko gai politikoei arreta berezia jarri zaie.

Ezberdintasunak ezberdintasun, agerkari guztietan politikaren baitan gehien jorratzen diren gaiak, nahiz eta agerpen-mailaren arabera batzuek besteak baino garrantzi handiagoa izan, hiru dira: **udala, Euskal Herriko gatazka** eta **alderdiak**. Hori bai, profesionalak ez diren aldizkarietan, politikaren barnean agertzen diren gai alternatiboei (gerra eta armaden gaiei) toki gehiago eskaintzen zaie; *Drogeteniturrri* eta *Berriketan* hilabetekariak horren erakusle argiak dira. Gai politikoak iritzi-atalean agertzen dira, batik bat irakurleen gutunetan eta iritzi-zutabeetan.

Ekonomiaren portzentajeak % 10etik behera kokatu dira ikerketa-epean aldizkari gehienetan. Ekonomiaren barnean, **merkataritza** eta **enpresa** izan dira gairik erabilienak. Mutrikuko *Kalaputxi* salbuespena da sei aldizkarien artean, **itsasoa eta arrantza** delako bertan gehien jorratzen den gai ekonomikoa. Hori baino adibide argiagorik ez dago, argitalpen bakoitzak agertzen dituen gaien bitartez bere herriko errealitatea islatzen duela baieztatzeko. Izan ere, Mutrikuko hilabetekarian ari den lan-taldeak herrian galtzear dagoen lehenengo sektoreari arreta berezia jarri dio hasieratik, gainerako hedabideetan oihartzun txikia duen gaia dela uste baitute.

Azterketa-epean, *...eta kitto!*, *Pil-pilean*, *Barren*, *Berriketan*, *Kalaputxi* eta *Drogeteniturrri* aldizkarietan argitaratu diren milatik gora adibide jaso dira ikerlan honetan, herrietako egunerokotasunean sortzen den gai-aberastasun eta aniztasunaren ispilu nagusi direla erakusteko. Milatik gorako izenburu horiek, neurri handi batean herritarren interes, bizitzeko modu eta pentsamoldearen isla direla baieztatu daiteke; Debabarreneko tokian tokiko prentsak, hurbilekoak izaki, herri-agendak lehenesten dituelako eta horrek markatzen du hedabideen eguneroko jarduna.

Gaitegiaren erradiografia horrek erakusten du Debabarreneko sei aldizkarietan jorratzen diren gaiak herritarren eguneroko bizitza kontuan hartzen dutela, berau dela euren gaitegiaren ardatz nagusia, herritarrak baitira aldizkarietako protagonista nagusiak. Politika-kontuak, ostera, bigarren mailan agertzen dira tokian tokiko prentsan, nazio mailako eguneroko prentsan ez bezala, non politika eta ekonomia diren gaitegiaren muina.

### 3.1.3. Herri-hizkeraren erabilera

Lan honetan aztertu diren sei herri-aldizkarien ezaugarriak aipatzeko orduan, ezin dugu ahaztu, herri bakoitzaren hizkerak argitalpenetan duen presentzia; lan honetan jaso diren adibideak horren erakusle garbia baitira.



Sei agerkarietan euskara batua da nagusi salbuespenik gabe; herriko hizkera sail zehatz batzuetan agertzen da eta euskalkiari dagokionez, bakoitzak eredu bati jarraitzen dio, ez baita erabiltzen guztientzat komuna den eredu bateraturik.

Agerkari guztien artean Eibarko ...*eta kitto!* da bertoko (Eibarko) hizkera gehien erabiltzen duena, aldizkarian idazteko eredu kazetarien artean finkatuta eta adostuta dagoelako. Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturri* aldizkarian, Mallabiko eta Ermuko hizkerak<sup>3</sup> (gutziz ezberdinak) gainerako errebistetan baino gehiago erabiltzen dira. Ezin ahaztu daiteke, Eibarren, Mallabian eta Ermuan bertoko euskararen inguruko lanak egin direla eta idazteko orduan, bi aldizkarietan lan horiek oso kontuan hartzen dituztela, erreferentzia garrantzitsuak baitira. Hala eta guztiz ere, azterketa honetan frogatu den moduan, argitalpen guztiek neurri handiago edo txikiagoan, herriko hizkera erabiltzen dute.

Jakina da iritzi ezberdinak daudela euskalkia tokian tokiko aldizkarietan sartzearen inguruan. Nolanahi ere, norberaren herriko hizkerak herrikoagoa egiten du aldizkaria, nortasun propioa ematen dio, gertutasuna lortzen du irakurlearekin eta herriko hizkera bizirik mantentzen laguntzen du. Betiere, euskalkia, modu egokian eta herri-hizkera idatziaren inguruko arauak errespetatuz erabiltzen bada. Idazteko, tokiko batua edo bateratua erabiltzea proposatzen dute gaia aztertu duten hizkuntzalariek.

#### 3.1.4. Aldizkarietako lan-taldea

Argitalpenetan soldatapeko edo borondatezko lan-taldearen bereizketa eginez gero eta langileen prestakuntza-maila aintzat hartuta, Debabarreneko komunikazio-sistema 3 eratako aldizkariak osatzen dute:

- a. Lehenengo mailan **aldizkari profesionalak** daude. Horietan kazetari (Komunikazio Zientzietan lizentziatuak) eta langile profesionalak egiten dituzten astekariak: Eibarko ...*eta kitto!* eta Elgoibarko *Barren* dira Debabarrenean aldizkari profesionalen eredu nagusiak.
- b. Bigarren maila batean **aldizkari erdi profesionalak** ditugu: bertan langile (Komunikazio Zientzietan lizentziatuak) profesional gutxi dago eta hainbat kolaboratzaile<sup>4</sup> finko ari dira, Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturri* eta Soraluzeko *Pil-pilean* aldizkariak sartuko lirateke multzo honetan.
- c. Azkenik, **langile profesionalik gabe funtzionatzen duten aldizkariak** daude, borondatezko lana zutabe nagusi dutenak: Debako *Berriketan* eta Mutrikuko *Kalaputxi*, hain zuzen ere.

Lan-taldearen osaketak eragin nabarmena dauka aldizkariaren edukietan; izan ere, agerkari bakoitzean dagoen lan-taldeak eta lan-taldearen egiturak baldintzatzen baitituzte Debabarreneko aldizkari bakoitzak erabiltzen dituen kazetaritza-genero eta gaiak.

---

3. *Drogeteniturri*ko kolaboratzaileek, bertako euskalkian idazteko orduan, Ermua eta Mallabiko berbetak ikertu dituzten bi filologoeekin batera adostutako idazte-arauei jarraitzen diete.

4. Kolaboratzaile finko gehienak ez dira Kazetaritzan lizentziatuak.

Esaterako, kazetaritza-generoei dagokienez, kazetari profesionalak lanean diharduten erredakzioetan, ...*eta kitto!*-n eta *Barrenen* adibidez, kazetaritza-generoak ikuspegi profesionaletik lantzen dira eta akademikoki ondo erabiltzen dira. Generoen arteko oreka ale guztietan hartzen da kontuan. Gaitegia selektiboagoa eta pluralagoa da. Bertoko langileak kazetariak eta profesionalak direlako eta kazetaritza-lanbidean trebatuta daudelako. Hau da, informazioaren eta iritzi-generoen arteko ezberdintasuna ezagutzen dute, unibertsitatean ikasi egin dutelako, aldizkari ez profesionaletan ez bezala.

## 3.2. Epe laburreko erronkak

Etorkizunari begira, Debabarreneko komunikazio-sistemak dituen erronkak diseinatzeko orduan, azterketa kuantitatibotik lortutako datuak eta azterketa kualitatibotik jasotakoak oso kontuan hartu dira. Horrenbestez, Debabarreneko sare euskaldunak behar-beharrezkoa du profesionalizatzea.

### 3.2.1. Militantzia

Alde batetik, gaur egun zenbait aldizkaritan dagoen militantzia gainditu beharra dago. Egun, euskarazko egitasmoak ezin dira hartzailleen euskararekiko afektibotasunean eta militantzian bakarrik oinarritu, militantziaren garai onenak pasatu direlako eta, gaur egun, Debabarreneko herri-aldizkarietan eskaintzen diren lan-baldintzen truke lan egiteko prest oso jende gutxi dagoelako.

Ikerlan honetan burutu den azterketa kualitatiboaren bitartez, argi geratu da Debabarreneko agerkari gehienek zailtasunak dituztela aldizkarietan kolaboratzeko jende berria bilatzeko. Bestalde, tokian tokiko hedabideek orain arte lortu dutena galdu nahi ez badute, ezin dute atzera begira bizitzen jarraitu, aurrera egin behar dute irakurlearen exigentzietara eta eskaeretara egokitzeko. Izan ere, informazio lokalaren esparruan gaztelaniazko prentsa sartzan hasia da eta irakurleek gaur egun euskarri ezberdinetan (prentsa idatzian, telebistan, irradian eta sarean) esku-ragarri duten eskaintza informatiboa izugarria da eta etengabe areagotzen ari da. Beraz, gaur egun, era ez profesionalean funtzionatzen duten ekimenak txalogarriak diren arren, eta sortu zirenean euskararen normalizazioan euren funtzio eta helburuak bete zituzten arren, urteak aurrera egin ahala, edukien aldetik (kazetaritza-genero eta gaien erabileran) herren daudela erakutsi dute; hilero ahal den moduan euskarazko herri-aldizkaria argitaratze hutsak ez baitu bermatzen edukien kalitatea<sup>5</sup>.

### 3.2.2. Kalitatea eta profesionaltasuna uztartu

Horregatik, kalitatea eta profesionaltasuna uztartzea ezinbestekoa da. Produktuaren edukian argi eta garbi islatzen baita hobea dela kazetaritza profesionalaren

---

5. Kalitateari gagozkiola, hona hemen Azpeitiko *Uztarría* herri-aldizkariko langileek *EuskoNews & Media* 157. zenbakian kalitatearen inguruan idatzi zutena: «Herritarrei euskarazko produktu bat ezin zaie eskaini euskarazkoa delako soilik; kalitatea ere eskaini behar zaie, eta gaur egun herri-aldizkariak, oro har, pauso hori emateke dute» (*Uztarría*, 2002/3/1-8).

Ido berean mintzo da Aitor Zuberogoitia ere, euskal hedabideek euskararen erreferentzia propioetan oinarritutako kalitatezko produktuak eskaini behar dituztela dionean: «Ez da aski informazioa euskaraz ematea: informazioa euskaraz emateaz gain, norbere hizkuntza-komunitatearen erreferentzia-sistema propioan oinarriturik eman behar da; eta kalitatea bazter utzi barik» (Zuberogoitia, 2003: 531).

ereduari jarraitzen dioten aldizkarien kalitatea: kazetaritza-generoak akademikoki modu egokian erabiltzen dituzte, maiztasun handiagoa dute, gaitegi selektiboagoa dute, haien orrietan herriko talde eta jendearen aniztasun handiagoa agertzen da, denbora gehiago eskaintzen diote kazetari-lanaren alde sortzaileari eta, oro har, astekari horiek eduki aldetik zerbitzu hobea eskaintzen diote irakurleari.

Nolanahi ere, modu ez profesionalean eta erdi profesionalean diharduten lantaldeen meritua ez da lan honetan zalantzan jarri nahi, musu-truk eta borondate onenarekin herriari eta euskararen normalizazioari urteetan egin dioten eta oraindik ere egingo dioten ekarpena handia da eta. Bertan egon zitezkeen langileei, berriz, mesede eskasa egiten diete, herri-aldizkari bat langilerik gabe egin daitekeela sinetsarazten ari delako eta horrek lanbideari eta produktuari berari prestigioa kentzen dielako. Izan ere, gaur egun Debabarreneko zenbait udalek tokian tokiko aldizkariari banatzen dizkieten diru-laguntzetan ez dituzte aintzat hartzen langileen gastuak. Proiektua bera diruz laguntzen da, baina langileen gastuak ez. Horregatik, aurrera begira oso inportantea da erakunde publikoek tokian tokiko aldizkariak ekoizten dituzten kazetari profesional ordainduen lana kontuan hartzea eta errekonozitzea diru-laguntzen banaketa egiteko orduan.

Mutriku eta Debako esperientziek erakusten duten moduan, langilerik gabe aldizkari bat egitea posible da, baina egitasmo horiek dituzten mugak ere handiak dira. Aldizkari bat langilerik gabe egin, egin daitekeelako, baina ez da gauza bera kazetari trebatua eta profesionala izatea edo ez izatea.

Ezin da ahaztu, ordea, langile ez-profesionalek egindako produktu horiek izan ezean, herri horietako hainbat etxetan ez litzatekeela euskarazko aldizkaririk sartuko, ezta irakurriko ere. Hala eta guztiz ere, aldizkari ez-profesionalak dauden tokietan, aldizkari profesionalak egongo balira, mesede handiagoa egingo liekete irakurleari eta hizkuntzari, produktu hobek ekoitziko litzaketelako eta, ondorioz, eraginkorragoak izango liratekeelako. Hots, eduki aldetik hobek izango lirateke: gaien aukeraketa eta tratamendua hobea izango litzateke, kazetaritza-generoek oreka handiagoa izango lukete, diseinuak hobetuko lirateke erakargarriagoak bihurtuz, iritzi-aniztasun handiagoa izango lukete eta irakurleari zerbitzu sendo eta zabalagoa emango liokete, oro har.

Tokian tokiko prentsak herriko produktu erreferentziala izan nahi badu, kalitatea behar du eta edukiak behar bezala zaindu behar ditu, esaterako iritzi ezberdinak bilduz, gaur egun ez dena gertatzen hainbat agerkaritan: *Berriketan* eta *Kalaputxin* ez da iritzi-zutaberik argitaratzen, ez baitute horren beharrik ikusten; *Berriketan* eta *Drogeteniturrin* ez dago irakurleen gutunen atalik. Kalitatea aldizkariaren arlo guztietan hartu behar da kontuan<sup>6</sup>.

Kalitatean irabaziz gero, produktua hobea litzatekeela ez dago zalantzarik eta ondorioz, agerkari horrek eragin handiagoa izango luke euskararen normaliza-

---

6. Iñaki Mendigurenek eta *Arrasate Presseko* lan-talde osoak argi zuten hasieratik kalitatea bermatu beharra zegoela: «Kalitate teknikoa, estetikoa... mamiari nahiz formari buruzko kalitatea. Gaur egun dagoen konpetentziarekin, kalitatea ez bada zaintzen, ez dauka zer eginik komunikabide batek. Gauzak duintasunez ez badira egiten, ez dago lehiari irabazterik. Berritasuna dela eta, lehen egunean irakurle edo ikus-entzulerik izaten badu ere, bigarrenean ez du izango» (Mendiguren, 1993: 25).

zioan betetzen dituen funtzioetan<sup>7</sup>. Baina kalitatea bermatzeko edukiak zaindu egin behar dira eta profesionaltasunez landu, horretarako idazgeletan kazetari profesionalak izatea oso garrantzitsua da eta horien trebakuntza ezinbestekoa<sup>8</sup>.

### 3.2.3. Lan-baldintzen hobetzea

Lan-baldintza duinak (lan-orduak eta soldatak) bermatzea ezinbestekoa da profesionaltasunez aritzeko, bestela alferrik izango da, inoiz ez da lan-taldea sendotuko eta langileak ez du inoiz sentituko lan hori luzerako denik, ezta benetako lana denik ere. Hasierako motibazioa galduz joango da eta aukera hobea duen unean alde egingo du beste norabait<sup>9</sup>. Lanpostua uztea arazo izan badaiteke ere, arazo larriagoa bilaka daiteke langile horren ordezkoa lortzea, lan-baldintza duinik ez dagoen tokian.

Orain arte hainbat aldizkarik horrela irauin dute, baina langileen ezegonkortasunak agerian uzten du ez diola aldizkariari inolako mesederik egiten, ez baitio sendotzen eta finkatzen uzten. Debabarrenean horrela gertatu da azterketa-epean: *...eta kitto!* eta *Barrenen* lan-taldeak handitu eta finkatu egin dira eta bertan diharduten kazetari profesionalak aldizkariaren zutabe nagusi bihurtu dira. Aldizkari horietan langileen kontratuak hobetu egin dituzte eta jende gehiago jarri dute lanean, bestelako esparru batzuk jorratzeko, web orriak lantzeko adibidez. *Pil-pilean* eta *Drogeteniturri* aldizkarietan, ordea, jendearen joan-etorriak proiektuari mugak jarri dizkio etengabe. Langile profesionalen kopurua oso txikia da bai *Pil-pilean* hamabostekarian zein *Drogeteniturri* hilabetekarian eta horrek langileekiko mende-kotasun handia sortu du; betebeharrak gehienak gutxi horien esku geratzen direlako eta profesional horiek lana utziz gero, aldizkariaren iraupena arriskuan gera daitekeelako. Horrelako proiektu erdi profesionaletan, lan-kontraturik ez zuten langileek urteekin lan-kontratu eskasak izatea lortu dute, baina oraindik orain, profesionalizatzeko bidean daude.

Debabarreneko aldizkari ez-profesionalek, aldiz, ez dute langilerian dirurik inbertitu, Debako *Berriketan* hilabetekariak ez duelako inoiz langilerik izan eta *Kalaputxi* bi langilerekin hasi bazen ere, egitasmoaren izaera berehala aldatu zen. Deban eta Mutrikun ez dago soldatapeko langilerik, borondatez ari den lan-talde

---

7. Hona hemen Idoia Camachok bere tesian herri-aldizkariari aitortzen dizkien funtzioak: «Giza harremanen bultzatzaileak dira, kultur eragile eta hedatzaileak, publizitatearen eragileak, aldizkari herrikoi, simple, zabal eta irakurteraza egitea eta euskaraz irakurtzeko zaletasuna lortzea da helburua, eta iritzi ezberdinen plaza behar dute izan» (Camacho, 1999: 101-102).

8. Azkoitiko *Uztarría* herri-aldizkariak honela definitzen du tokian tokiko aldizkarietan aritu behar den kazetariaren profila: «Aldizkariako kazetariak, langile militantea izan behar du; hori, lehenbizi. Behin profil horretako kazetaria lortu ostean, kazetariak etengabeko trebakuntzan jardun behar du: maketazioan, argazkigintzan, euskararen, idazkeran, kazetaritzan... Aldizkariaren produkzio osoa inola ere kazetariaren esku utzi gabe —aldizkaria ez baita kazetariarena, elkartearena baizik—, hein handi batean kazetariak hasi eta bukatuko du aldizkaria bera, eta, ondorioz, kazetaritzako atal guztiak dominatu egin behar ditu» (*Uztarría*, 2002/3/1-8).

9. Iritzi berekoa da Gotzon Lobera, euskara elkarte eta aldizkariak dituzten langileak galdu nahi ez badituzte zaindu eta mimatu behar dituztela dionean: «Kalitatea bermatu behar bada, euskarazko komunikabideetan, langileen egoera hartu behar da kontuan; izan ere, tokian tokiko euskarazko komunikabideak, gaur egun, Lezama beste dira kazetaritzan. Athleticen jokalaririk onak lortzen duenean, berak nahi ez badu jokalaririk hori galtzea, orduan kontratu ona egin beharko dio jokalaririk horri, beste toki batera joan ez dadin» (Lobera, 2005: 333).

eta jendearen mende daude erabat, etorkizun ziurrik gabe<sup>10</sup>. Horrezaz gain, orain arte esandako guztiak agerian utzi ditu kalitatezko produktu bat egiteko orduan kazetari profesionalen beharra eta garrantzia.

Nolanahi ere, aldizkari gehienetan benetako lan-baldintza duinak lortzeko asko falta da oraindik. Lan-baldintzen gaia, gainditu gabe dagoen ikasgaia dela esan daiteke Debabarreneko aldizkari gehienetan eta aurrera begira, gai honek ausardiaz jokatzeari eskatzen du, langilerian diru gehiago inbertituz eta gaiari lehentasuna emanez.

### 3.2.4. Gaurkotzea

Debabarreneko agerkari guztiak ez dira norabide berean mugitu azken urteotan, gehienak (*Drogeteniturri*, *Pil-pilean*, *Berriketan* eta *Kalaputxi*) atzean geratu dira eta edukiek erakutsi dutenez, kalitatean aldizkari profesionalak baino gutxiago aurreratzeaz gainera, maiz euren jokabideetan inertzia nagusitu da, egunerokotasunak eta lan-taldearen funtzionamenduak<sup>11</sup> (langile profesional gutxi, horien dedikazio mugatua, kolaboratzaileen mendeotasuna...) inertzia horretara bultzatuz.

Sei aldizkarien antolaketa eta lan egiteko era ezberdinek agerian utzi dute egitura zenbat eta profesionalagoa izan, argitalpenak baliabide gehiago dituela garai berrietara egokitzeko, sendotuta dagoelako. Horixe da ...*eta kitto!* eta *Barrenen* kasua Debabarrenean, gaur egun web orrialdea duten bakarrak bi aldizkari horiek baitira.

Egitura ez-profesionaletan oinarritutako proiektuak ahulagoak dira eta nahikoa lan izaten dute esku artean daukaten produktua mantentzearekin.

### 3.2.5. Denbora eta baliabide ekonomikoen optimizazioa

Aurrera begira denbora eta baliabide ekonomikoen kudeaketa hobea egitea erronka bilakatu da, denbora eza eta diru-urritasuna baitira Debabarreneko komunikazio-sistemak kontra dituen bi faktore nagusiak. Gainera, aldizkarien egiturak zenbat eta txikiagoak izan, arazo larriagoa bihurtzen da bai bata zein bestea.

Eguneroko jarduerak nahikoa zeregin ematen dio bakoitzari eta zaila izaten da patxada hartu eta etorkizuna diseinatzeko denbora hartzea, oro har, lan-talde txikiak direlako eta aldizkariak garaiz ateratzea zeregin garrantzitsuena bilakatzen delako. Zer esanik ez, langilerik gabe diharduten edo langileen dedikazioa txikia

---

10. Luis Alberto Aranberri 1976an idatzitakoa oso interesgarria da gaur egun gogoratzea, euskarazko kazetaritzan ez baita erabateko profesionalizatzea lortu: «Zer gertatuko litzateke ikastoletan baldin eta irakasleak profesionalak ez balira? Irakaskintza irakasleen ogibidea ez balitz, alferrik metodologiarik onena, alferrik bokazio bihozkorrena, hogeita bost urtetik gorako irakasle guti izango genuke benetan. Kazetaritzan beste horrenbeste gertatzen da. Egiazko kazetaritza egingo bada, notiziaren lekuko izatekotan, nor bere uzta (eta ez inori kopiatu) jasotzekotan, kalera atera beharra dago, egun argiz atera ere. Ez da aski luma azkarra izatea, ez alfabetatze ikastaroa amaitzea, ez euskal klasikoak buruz ezagutzea eta ezta Euskaltzaindiaren titulua ateratzea ere. Hizkuntzarekiko gaitasunaz gainera (oinarrizko bestalde, edozein hizkuntzatan) dinamika bat bizi eta frogatu egin behar da, eta dedikazio honek diru ordain bat eskatzen du, profesionaltasun bat alegia. Gainerakoak sasi-konponketak dira, avestruzaren jarrera, luzarorako ez den jokoa» (Aranberri, 1976-II-1).

11. Gehienetan, aldizkari lan-taldea koordinatzaile/zuzendari nagusiak, publizistak eta kolaboratzaileek (gehienak kazetari ez direnek) osatzen dute.

den tokietan. *Kalaputxi* eta *Berriketan* aldizkarietako kideek aldizkaritik kanpo dituzten betebeharren ostean geratzen zaien denbora libre gutxi hori aldizkariaren produkzioan ematen dutelako. Bestalde, *Drogeteniturri* eta *Pil-pileanen* ari diren langileek aldizkaria ateratzea izaten dutelako helbururik inportanteena.

Diru faltak ere makina bat buruhauste ematen die aldizkariari, Debarreneko herri-prentsa erakundeen diru-laguntzen morroi bizi baita hein handi batean. Datuek adierazten dutenez, aldizkari ez-profesional eta erdi profesionalek diru-laguntzen mendekotasun handiagoa dute aldizkari profesionalek baino. Batetik, autofinantziazio-maila (publizitatearen sarrerak batez ere) gehitzeko arazoak dituztelako, jende gutxi ari baita ekonomia-esparrua kudeatzen. Beste alde batetik, ari diren gutxi horiek ez direlako langile kualifikatuak izaten (ekonomialariak, administrariak...)

Beraz, arlo horietan, idazten bezala, langile kualifikatuak eta profesionalak behar dira aldizkari ez-profesional eta erdi profesionaletan.

### 3.3. Etorkizunaren diseinua

Ikerlan honen emaitzek argi eta garbi erakusten dute Debarreneko komunikazio-sistemak berrantolaketa beharra duela, egungo egoerak goia jo duelako eta bidea agortzeaz dagoelako.

Milurteko berrian tokian tokiko euskarazko prentsan aldaketak izan dira eta, kasu gehienetan, herri mailako hasierako egitasmoek herrietako esparrua gainditu eta eskualdera zabaldu dira. Sortu diren proiektu berri guztiek antzera jokatu dute: enpresa-egitura sendoagoa eta handiagoa osatu dute, eta formatu eta euskarri ezberdinetan eskaintzeko produktuak sortu dituzte<sup>12</sup>. Beraz, etorkizunean Debarreneko tokian tokiko agerkari txikien antzeko egitasmoak berregituratze-prozesu batera behartuta daudela dirudi, bakoitzak bere herri edo bailarara hobeto egokitzen den bidea hautatuz.

Horregatik, epe laburrean, lehen baino lehen, Debarrenerako eskualde mailako egitasmo multimedia gauzatu behar da. Hots, 2003an hasitako bideari bukaera ematea izango litzateke etorkizuna diseinatzeko aukera egokiena eta guztientzat mesedegari. Bateratzearekin, guztiek galduko dute euren den zerbitu, baina guztientzat onuragarria den asko irabaziko dute segur aski, Debarreneko aldizkari erdi eta ez-profesionalek bezala aldizkari profesionalek ere. Handien aurrean, txikien indarra batasuna delako, elkartasuna eta herritarren atxikimendua.

Bestelako esperientzia batzuek horrela frogatu dute, bailaran hedatuta erreferentzialtasuna lortu dutelako. Era berean, egun sektoreari leporatzen zaion atomizazioa saihesten lagunduko luke; bailaran dagoen aldizkari kopurua arrazionalizatuko litzatekeelako, kalitatezko egitasmo hobea lortuz.

---

12. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Debagoienean, Durangaldeko Herri Komunikabideak Durangaldean, *Guaixe* astekaria eta *Baleixe* irratia Sakanan eta EKTren zenbait eskualdeetako *Hitzak*, besteak beste.

### 3.4. Ekoizpen globala

Edozein egitasmo martxan jarri aurretik ezinbestekoa da baliabide ekonomiko bideragarritasuna lantzea.

2004ko datuek adierazten dutenez, Debabarrenak eskualdeko astekari komun bat argitaratzeko ezaugarriak betetzen ditu eta ekonomikoki bideragarria litzateke; betiere, erakunde publikoen aldetik, ordura arteko diru-laguntzak ziurtatzeko borondatea balego.

Debabarreneko agerkari guztien hileko tiradak batzen baditugu, botaldi bakoitzeko 18.120 ale banatzen dira bailaran eta 144 orrik ikusten dute argia.

2004ko aurrekontu eta balantzeak kontuan hartuz, Debabarreneko euskarazko komunikazio-sistema idatzia osatzen duten herri-aldizkariak 555.000 euro (92 milioi pezeta pasatxo) mugitzen dituzte urtean. Euskal Herriko aldizkari gehienak bezala, Debabarreneko argitalpenen diru-iturri nagusiak bi dira: erakunde publikoek urtero banatzen dituztenak (herrietako udalek, Bizkaiko zein Gipuzkoako Foru Aldundiek<sup>13</sup> eta Eusko Jaurlaritzak) eta publizitateak lortzen dituzten diru-sarrerak.

Orotara, urtean 262.000 euro (43 milioi t'erdi inguru) jasotzen dituzte sei agerkariak erakunde publikoetatik diru-laguntzetan.

Urtean, Debabarreneko aldizkari guztien artean bailara osoan 228 publizitate bezero finkori eskaintzen zaie zerbitzua eta urtean 251.000 euro (41 milioi t'erdi gutxi gorabehera) fakturatzen dira publizitatean.

2004ko datuen arabera, hemeretzi langile profesional eta borondatez diharduten hamar langilek bermatzen dute Debabarreneko komunikazio-sare euskaldunaren funtzionamendua. Bederatzi lagunek egun osoko kontratua dute, bostek egun erdiko kontratua, batek egunean bi orduko kontratua dauka eta beste lauk kobratzen badute ere, ez dute lan-kontraturik. Mutriku eta Debako hilabetekarietan diharduten hamar lagun borondatez ari dira hilabetekaria egiten, sosik kobratu gabe.

Horien guztien lana, berriz, Eusko Jaurlaritzak 2006an euskarazko hedabideen audientziak neurtzeko egin zuen azterketaren arabera, **25.100**<sup>14</sup> irakurleri dago zuzendua.

Datuek aukera egon badagoela erakusten dute, eskualdeko proiektu komun eta multimedia erakoa sortzeko. Aurrerantzean 2003an ekindako bide hari bukaera ematea falta da. Denborak esango du Debabarreneko aldizkariak elkarrekin edo bakarka egingo duten etorkizuneko bidea. Orain arte, sei aldizkariak, bakoitzak bere aldetik, Debabarreneko euskarazko sistema komunikatibo idatziari eustea eta prestigioa ematea lortu dutela erakutsi dute.

---

13. Bizkaiko Foru Aldundia 2000. urtean hasi zen tokian tokiko aldizkarietarako diru-laguntzak banatzen.

14. Iturria: Eusko Jaurlaritza. (2006): *Euskarazko Hedabideak* barne txostena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 72-73. or.

Ikerlan hau Debabarreneko euskarazko komunikazio-sisteman oinarritu bada ere, Euskal Herrian tokian tokiko euskarazko prentsak bizi duen egoeraren erakusle eta adierazle izan daiteke.

## Bibliografia

- Agirreazaldegi, A. (1993): "Euskarazko herri-aldizkari bat zure herrian", in Askoren artean, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.
- Amilibia, A. (2002): "Bierrik elkarte eta euskarazko herri komunikabideak Sakanan", *Euskonews & Media* aldizkaria, **157**, <[www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm)>.
- Aranberri, L. A. (1976): "Euskal kazetaritzaren inguruan", *Argia*, **675**, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Aranguren, A. (1991): "Prensa lokala Euskal Herrian, ezarpena eta zabalpena", in Askoren artean, *Prensa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.
- , (2000): "*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*" doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Aranzabal, J. (1991): "Herri aldizkari baten tajuketa", in Askoren artean, *Prensa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.
- Askoren artean (1992): "Euskal prentsa lokalaren problematika", in *Jakin*, **69**, Donostia, 51-66.
- , (2000): "Leku eske ari dira euskalkiak", (Xabier Letonak gidatutako mahai ingurua", in *Larrun*, **29**, Lasarte-Oria.
- , (2003): *Tokiko hedabideak etorkizunera begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak*, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- , (2005): *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2006): "Euskal kazetaritzaren urtea", in *Gu gara Euskal Prentsa, hautu baten kronika 1976/2006, DVDA*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2006): *Prensa, irratia, sareak, telebista*, Euskarazko Hedabideen topaketamintegia txostena, Udako Euskal Unibertsitatea, Eibar.
- Azkarate, E. (2002): "Goienkaria: astekari bat Debagoienarako", *Euskonews & Media* aldizkaria, **157**, <[www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm)>.
- Camacho, I. (1999): *Herri aldizkarien funtzioak euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999* doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Diaz Noci, J. (1999): "Medios de comunicación en euskara: un modelo dependiente del dinero público", *Euskonews & Media*, **26**, <[www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm)>.
- Diezhandino, M. P. eta Coca, C. (1997): *La nueva información*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Eizagirre, E. eta Irureta, O. (2004): "Euskarazko prentsa etorkizuneko antolaketari begira" (mahai-ingurua), *Larrun*, **80**, Lasarte-Oria.
- Elizondo, E. (2004): "Guaixe, ostiralero", *Berria*, 2004/III 4.
- Elkoroberezibar, M. A. (1991): "Euskal Herriko prentsa lokalaren finantzabideak", in Askoren artean, *Prensa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.
- Eusko Jaurlaritza. (2006): "*Euskarazko Hedabideak*" (barne txostena), Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Irizar, M. (2001): *Goiena esperientzia, eskualdeko talde multimedia baten sorrera*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Iturain, I. (1999): "Euskara batua ala euskalkiak herri aldizkarietan?", *Euskonews & Media*, **26**, <[www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm)>.



- Larrañaga, J.; Gabantxo, M. eta Aranguren, A. (1997): "Sei herri aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat", *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación*, **6**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 15-40.
- Larrarte, J. (2005): "EKT: Etorkizuneko komunikazio taldearen oinarri sendoa", in Askoren artean, *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Lobera, G. (2005): "Administrazioaren ikuspegiaren aldaketa", in Askoren artean, *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Mendiguren, I. (1993): "Euskarazko komunikabideak", *Jazten*, **8**, Arrasate Euskaldun Deza-gun, Arrasate, 23-26.
- Mendizabal, J. (2005): "Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea", in Askoren artean, *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Autore ezezaguna (2003): "Euskaldun baten etxean astekari bat", *Topaberri Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioaren berripapera*, **24**, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- Uztarria (Azpeitiko herri-aldizkaria). (2002): "Kalitateko produktu erreferentziala helburu", *Euskonews & Media*, **157**, <[www.euskonews.com/0157zkb/irgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/irgaia.htm)>.
- Uztarria.com. Azpeitiko ataiye (2002): Koldo Zuazoren hitzaldiaren laburpena. <[www.uztarria.com/euskara/doku/02\\_hitzaldia/02Zuazo](http://www.uztarria.com/euskara/doku/02_hitzaldia/02Zuazo)>.
- Zabaleta, I. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Zuazo, K. (2006): *Deba Ibarreko euskara, dialektologia eta tokiko batua*, Badihardugu Euskara Elkarte, Eibar.
- Zuberogitia, A. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean* doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

